

Branka alboetako kroskoa
zeharo herdoilduta zegoen,
baina irakurria zuen,
edo imajinatua,
ontziaren izena,
Esmirna,
**itsasoetan zehar** urterik
urte luzitutakoa
seguru asko.

Joseba Sarrionandia
Lagun Izoztua
2001

Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

## *Zehar* postposizioan, NON atzizkia erabiltzea da ohikoena.

- Kalean zehar korrika zihoan.
- Munduan zehar ibilia naiz.
- Usaina gelan zehar hedatu zen.
- Bideak urratu dituzte mendietan zehar.

# Baina NONDIK atzizkia ere erabil daiteke.

- Kaletik zehar korrika zihoan.
- Mundutik zehar ibilia naiz.
- Usaina gelatik zehar hedatu zen.
- Bideak urratu dituzte mendietatik zehar.

Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

# NOREN atzizkia, ordea, ez.

- *Kalearen zehar korrika zihoan.
- *Munduaren zehar ibilia naiz.
- *Usaina gelaren zehar hedatu zen.
- *Bideak urratu dituzte mendien zehar.